



Getxo
bizi ezazu

Gidabaimena lortzeko azterketa euskaraz egiteagatik diru-laguntzak gazteentzat

Euskararen jakite-maila eta erabilera sustatzeko diru-laguntzen 2019ko deialdiaren oinarriak onartu ditu Getxoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzak, 2018ko azaroaren 27ko 470 zenbakidun ebazpenaren laburpena. Deialdi honek ondorengo diru-laguntza ildoak jasotzen du:

Gidabaimena lortzeko azterketa euskaraz egiteagatik diru-laguntzak gazteentzat DBNS (Identif.): 432125

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluekin bat etorrita, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Testu osoa ikusi izanez gero, Diru-laguntzen Datu-base Nazionala kontsulta daiteke: (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>).

1.- Helburua

Gidabaimena lortzeko azterketa euskaraz egiteagatik diru-laguntzak gazteentzat.

2.- Zenbatekoa

2019rako diru-laguntza hauetarako 4.000 euroko gastua onartu du Getxoko Udalak.

3.- Epeak

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean deialdiaren laburpena argitaratu eta biharamunetik hasita 2019ko abenduaren 31ra arte (barne).

Getxon, 2018ko abenduaren 27an.

Izp.: Koldo Iturbe Mendilibar
Kultura, Euskara eta Gazteria Arloen Zinegotzi Delegatua.
2015eko uztailaren 2ko 2985 zenbakiko Alkatetzaren Dekretuak emandako esku-ordetzaren bidez.